

JOSEBA ORUETA / Kutxabank Gestión-eko kontseilari nagusia

«Gure bezeroek argi izan behar dute haien inbertsioekin enpresen jokabidean eragiteko ahalmena dutela, eta gainera, errentagarritasun on bat eskuratzearekin bateragarria dela»

Inbertsio-fondoan industrian, gero eta gehiago dira inbertsioen iraunkortasuna sustatzen duten fondoak. Horren harira, Joseba Orueta Kutxabank Gestión-eko kontseilari nagusiak azaldu digu zein den gizartearekin arduratsua den inbertsioaren inguruan erakunde-kudeatzaileak duen ikuspegia, eta zein jardunbidea.



Joseba, ohartu gara gizartearekin arduratsua den inbertsio-politika bat duten fondoan kopuruak gora egin duela. Joera hori jarraituko duzue Kutxabank Gestión-en?

Egia da azken urteotan Espainiako erakunde gehienek produktu berriak merkaturatzearen alde egin dutela, ingurumenarekin, giza eskubideekin, ustelkeriarekin eta bestelako gaiekin sentibilizatuta dagoen jendearen eskariari erantzuteko.

Guri ere ez zaigu oharkabea pasa gizartearen eskaera hori, baina **ikuspegi orokor batetik heldu nahi diogu**. Hau da, bezeroaren eta erakunde-kudeatzailearen arteko ekosistema bat sortu nahi dugu, inbertituko dugun enpresen iraunkortasunera bideratutako ikuspegi bat sustatuko duena.

Eta nola egingo duzue hori? Zertan oinarritzen da ikuspegi orokor hori?

Gure estrategia **gizartearekin arduratsua den erakunde-kudeatzaile bat** bihurtzean datza; eskari berriari erantzuteko, produktuak merkaturatzean oinarritu beharrean. Horrek



esan nahi du gizartearekin arduratsuak diren inbertsio-irizpideak ez direla produktu bakar batean aplikatuko, **kudeatzen diren produktu orotan egiten diren inbertsio guztietan** baizik. Arreta-gunea produktuan jartzeak konpromiso txikiago bat dakar berekin, kasuan kasuko fondoaren ondarrera mugatzen delako, eta gainerako sorta inbertsio-ikuspegi tradizionalaren eta soilik finantza-arloko irizpideen menpe geratzen delako. Beraz, Groucho Marxen esaldi ezagunaren antzeko zerbait gertatzen da: «Hauexek dira nire printzipioak (GAI fondoa); gustuko ez badituzu, beste hauek ere baditut (gainerako fondoaren sorta)». Gure planteamendua guztiz kontrakoa da. Espainiako hamar erakunde-kudeatzaile nagusien artean, bezeroen eskaria ikuspegi orokor batetik erantzuten duten bi erakundeetako bat gara gu.

Bezeroak ulertu behar du enpresetan aldaketak eragiteko ahalmena duela. Kontsumitzaile gisa ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten (ekologikoak, birziklatuak, biodegradagarriak...) produktuak erosten dituen moduan, ekoizpen-estandarrek aldatzeko asmoarekin, **bere inbertsioekin enpresen jokabidean eragiteko ahalmena duela** azaldu behar diogu bezeroari.

Pertsona bakar baten banakako aurrezkiak ez da nahikoa ezer aldatzeko, baina pertsona askoren **aurrezkiak batu** eta inbertsio-fondoaren bitartez bideratzen ditugunean, **eragina izateko ahalmena modu esponontzialean handitzen da.** Izan ere, inbertsio txikiak fondo bakar batean biltzea ez da nahikoa. Benetan aldaketa bat sustatu nahi badugu, konpromisoa handiagoa izan behar da; horregatik, gure ikuspegiak orokorra izan behar du. Mundua iraunkorragoa izan daiteke, baina, horretarako, gure baliabide guztiak erabili behar ditugu, eta ez eskari zehatz bati erantzuteko produktu soil bat.

Baina ikuspegi orokor horrek ez du errentagarritasuna murrizten? Oker ez banago, eskakizun zehatz batzuk betetzen ez dituzten enpresetan ez inbertitzea da ideia. Nolanahi ere, erabaki horrek epe luzean errentagarriak izan daitezkeen inbertsio-aukerak galtzea ekar lezake.

Gizartearekin arduratsuak diren inbertsio-irizpideak aplikatzea, konpainia batzuk (baldintza zehatza batzuk ez betetzeagatik) baztertzeaz haratago doa. Baina, dena den, zuk ateratako ondorioa ez da zuzena. Kontua ez da iraunkortasunaren eta errentagarritasunaren artean aukeratzea; **iraunkorra dena denbora luzeagoan izango baita errentagarria.**

Kasu askotan ikusi dugu gizartearekin arduratsua den inbertsioa aintzat ez hartzeak **burtsan portaera kaskarrak** dituzten enpresetan inbertitzera eramán gaitzakeela, **jardunbide desegokien ondorioz.** Duela gutxi, horren adibide argi bat izan dugu automobilaren sektorean.

Gizartearekin arduratsuak diren irizpideetan oinarritutako inbertsioez ari gara behin eta berriz, baina gutako askok ezer gutxi dakigu horren inguruan. Gizartearekin arduratsua den inbertsioa zer den argitxerik bai?

Enpresa bat aztertzeako orduan, tradizionalak (salmentak, etekina...) ez diren beste alderdi batzuk gehitzean datza **gizartearekin arduratsua den inbertsioa**, ingurumenarekin, gizartearekin eta gobernantzarekin zerikusia dutenak, hain zuzen ere. Zehatz-mehatz, IGG (edo bere ingelesezko siglekin, ESG) irizpideak aplikatzean datza. I letrak **ingurumenarekin lotutako alderdiei** egiten die erreferentzia; hau da, baliabide naturalen kudeaketari, klima-aldaketaren aurkako estrategiari... S hizkia, bestalde, **gizarte-arloko alderdiekin** lotuta dago: giza eta lan-eskubideekin, osasunarekin, tokiko komunitatean integratzearekin... Amaitzeko, G letrak **governantza-arloko alderdiei** egiten die erreferentzia: enpresen administrazio-kontseiluen eraketari, ordainketa-politikei, ustelkeriari...

Irizpide horiek aplikatuz gero, eragina izateko ahalmenaz hitz egin duzu lehen. Zehatz-mehatz zer egiten duzuen azalduko diguzu?



Lehenago esan dudan moduan, ikuspegi orokor bat aplikatzen dugu. **2017an, UNPRIekin bat egin genuen, NBEren ardurapeko inbertsio arduratsuaren irizpideekin.** Ondorioz, gure inbertsio guztietan gizartearekin arduratsuak diren irizpideak aplikatzeko konpromisoa hartu genuen, baita inbertsiogileen komunitatean gizartearekin arduratsuak diren inbertsioen garapena lagundu eta sustatzekoa ere.

Horren harira, Administrazio Kontseiluak, erakunde-kudeatzailearen gobernu-organo gorenak, onartutako **GAI** (Gizartearekin Arduratsua den Inbertsio) **politika bat zehaztu dugu**, ondoren GAI Batzordeak garatutakoa eta Inbertsioen Taldeak ezarritakoa. Gainera, urtero UNPRIen auditoretza egiten dugu, zer aurrerapen egin diren aztertzeko. Nolanahi ere, iraunkortasunarekin daukagun konpromisoa erakunde-kudeatzaileaz harago doa; **talde mailako konpromisoa da.** Kutxabankek, iraganean aurrezki-kutxa izandakoak, konpromiso irmoa du inbertsio iraunkorraren garapenarekin.

Gizartearekin arduratsua den erakunde-kudeatzaile bihurtzerainoko prozesuan, **bazterketatik eraginkortasunera igaro gara.** Bada, inbertitzen ez genuen enpresen zerrenda bat osatzen hasi ginen, paper aktibo bat izatera pasatzeko, akzioak ditugun enpresetan parte hartuz eta modu positiboan eragiten saiatuz. Horretarako, Administrazio Kontseiluetara joaten hasi ginen, gure GAI politikaren aurka egiten zuten eguneko puntu guztien kontra bozkatzeko. Horrez gain, bonu berdeetan inbertitu dugu, gizartearekin arduratsua den inbertsioarekin lotutako proiektu bat helburu duten errenta finkoko inbertsioetan, alegia.

Labur esanda, **gure helburua enprekin elkarrizketa bat hastea da,** eta ez harremani etsaitasun ikuspegi batetik heltzea. Inbertsioak (akzioetan zein bonuetan) egiten ditugun enpresek gizartearekin arduratsuak diren alderdiak kontuan hartzen ditugula jakin dezaten nahi dugu, haiengan gai horren inguruko interesa pizteko, gure finantzaketa galtzerik nahi ez badute bederen. Zirkulu bertutetsu bat sortzea da helburua: guk inbertsio-tresnen bidez (funtsak, BGAEak...) ordezkaturako aurreztaileek dituzten interesen berri ematen diegu, eta enpresak sentibilizazio horretaz jabetu eta euren prozesuak egokitzen hasten dira, finantzaketa mantentzeko. Gainera, prozesu berri horiei esker, iraunkorrakoak dira epe luzean, eta enpresaren etekin ekonomikoaren mesederako dira.

Gure ikuspuntutik, **mugimendu geldiezia da.** Europan, GAIren babespean egindako inbertsioen kopurua modu esponontzialean hazten ari da, eta gure betebeharra gorakada horretan laguntzea da. Guztion artean **etorkizuneko belaunaldiei ekonomia iraunkorrako bat utz diezaiekegu ondare gisa, gure inbertsioetan errentagarritasun onak eskuratzeari muzin egin gabe.**

